

2025EKO APIRILAREN 30EAN TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita hamar

HILABETEA: Apirila

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko hirurak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

BILDUA: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV)

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

EZ DA ETORRI:

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

1.- EPAIMAHAIAREN ESKU-HARTZEA DUTEN PROIEKTUEN LEHIAKETA, ETA, HALA BADAGOKIO, OLARAN MANUFAKTURAK ERAIKINA OSORIK ERABERRITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA ETA EXEKUZIO-PROIEKTUA IDAZTEA: 7.1 artikulua aldatzea (parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea) eta akatsak zuzentzea. 2025PROB0003

Ezagutzera eman da Lurralde arloko lehendakariaren proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2025-04-10. Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, pleguak onartzen dituen eta lizitazioa deialdi publiko bidez egitea erabakitzen duena.

2.- 2025-04-14. Deialdia EBAOn eta Euskadiko kontratazio-plataforman argitaratzea.

3.- 2025-05-11. Proposamenak aurkezteko epea amaitzea.

4.- 2025-04-24. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak mezu elektroniko bat bidaltzen du parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea luzatzeko eskatuz, plataforman argitaratzen den eguna kontuan hartuta, epea hilabetetik beherakoa delako eta Aste Santuko oporraldiarekin bat datorrelako.

OINARRI JURIDIKOAK

Arrazoizkotzat jotzen da egindako eskaera; izan ere, administrazio-baldintzen agiriko 10. artikuluko irizpideak betetzeak, lehen fasean baloratzen direnak, lizitazioan interesatuta dauden profesionalek aldi baterako enpresa-elkartearen figurara jo behar izatea ekar ditzakete eta ,horretarako, epe luzeagoa behar dute eskaera prestatzeko.

Ondorioz, konkurrentzia sustatze aldera eta, aldi berean, azken bost finalistak hautatzeko, aukera gehiago izateko, Tokiko Gobernu Batzarreko kontratazio-organoaren iritzipean jartzen dut honako erabaki-proposamen hau:

Lehenengoa. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea luzatzea (LEHENENGO FASEA) 2025-05-23ra arte (23:55), egun hori barne.

Bigarrena. Administrazio-pleguan akats hauek zuzentzea:

- 3. artikulua. "Lehiaketa HIRU fasetan garatuko da:" dioen lekuan, honako hau esan behar du: "*Lehiaketa eta ondorengo zerbitzu-kontratua HIRU fasetan garatuko dira*:".

- 9. art.: "... Gutun-azal honen kanpoaldean informazio hau jaso beharko da:", dioen lekuan, hau esan behar du: "*... Artxibo elektronikoa honetan honako informazio hau jaso beharko da*:".

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritzia azaldu dituzte proposamenarekiko:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du beraiek ez daudela ados, aurreko bileran ere aurka bozkatu zutelako. Baita ere adierazi du faltan botatzen dutela aldaketa honi buruzko txosten juridikoa.

Idazkari andreak ihardetsi du Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, zilegi dela proposamenak aurkezteko epea handitzea.

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu). "Gu gai honekin kritikoak gara eta horren ondorioz gure bozka ezezkoa izango da."

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Aurkeztutako proposamenak koherentzia badu ere, gure botoa ere aurkakoa izango da, orain arte puntu honekiko adierazitakoaren arabera."

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da.

Aldeko botoak:3 (EAJ)

Aurkako botoak: 3 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Aldeko boto eta aurkakoen artean berdintasuna dagoenez, bozketa berriro errepikatu da eta emaitza berdina lortu da. Horren ondorioz, Alkateak kalitatezko botoa erabili du eta proposamena onartu egin da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hirurak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.